

## 2019KO SAN JOAN JAIK IRAGARTZEKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETAREN OINARRI ARAUAK.

- 1.- Nahi duten norbanako guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan.
- 2.- Jatorrizko lanek 32cm-ko zabalera x 48cm-ko altuera izango dute; ezinbestekoa da formatu digitalean aurkeztea. Eta aukerakoa paperean edo/eta kartoi-lumazko euskarrian, kolore orotan eta edozein modalitate artistikotan.  
Lana formatu digitalean 300ppp\*ko erresoluzioan eta CMYK erako koloretan aurkeztu behar da.
- 3.- Kartelak "SANJOANAK 2019" goiburua eraman behar du.
- 4.- Lehiakideak izango dira jabetza intelektualaren ondorioetarako aurkeztu dituzten obren erantzule, baita aurkez litekeen edozein erreklamazioen aurrean ere, imajina eskubidea barne.
- 5.- Idatzizko eta irudi bidezko komunikazioan, hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatuko da. Bereziki pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan islatuko dira. Udaleko web orrian eskuragarri dago jarraitu beharreko gida: "Komunikazio berdinzalerako jarraibideen gida: Ahozko, idatzizko eta irudi bidezko komunikazioa Hernaniko Udalean".
- 6.- Entregatzeko epea 2019ko martxoaren 29an bukatuko da.  
Jatorrizko lanak Biteri Kultur Etxean aurkeztuko dira, sinadurarik gabe eta kartazal itxian, egilearen izena, helbidea eta telefonoa aditzera emanaz.
- 7.- Hautatutako kartela zein den 2019ko apirilaren 30ean jakinaraziko da. San Joan Jai batzordeak aurkeztutako kartel guztietatik gehienez ere 6 kartel aukeratuko ditu. Eta ondoren, Hernaniko herritarrek bozka emateko aukera izango dute. Bozka gehien jasotzen dituen kartela proposatuko da San Joan jaiak iragartzeko kartela izateko. Azkenik, Kultura batzordeak berretsi beharko du proposamena.
- 8.- Sari bakarra 600 eurokoa izango da, 300 euro Hernaniko Berriak elkarteko dendatan erabili beharko dira, eta beste 300 euroak transferentzia bidez egingo da.
- 9.- Saritutako obra Hernaniko Udalaren jabetzan geldituko da.
- 10.- Beharrezkoa da 2019ko maiatzaren 29a baino lehen obra hauek erretiratzea, data horretarako erretiratu ezean Udalaren eskuetara pasatuko dira.
- 11.- Erabakia apelaezina izango da.
- 12.- Lehiaketan partaide izateak, oinarri hauen osoko onarpena eskatzen du.
- 13.- Hauek dira kontuan izan beharreko datak, beraz:
  - Martxoak 29. Proposamenak jaso.
  - San Joanetako jai batzordeak gehienez 6 kartel aukeratuko ditu.
  - Apirilaren 3tik 17ra . Herritarren bozka jasotzeko epea: online eta Biteri kultur etxean.
  - Apirilak 30. Kartel irabazlea jakinaraziko da.